

ARAUDIA

1. artikulua - Data

2013ko azaroaren 17an, igandea, **"Beren bizitza aldatzearen borrokatzen diren emakume ausarten aldeko I. ALBOAN Lasterketa Solidarioa"** egingo da, Gasteizen.

2. artikulua - Ibilbidea

Ibilbidearen luzera: 6,2 km. Irteera: 11:00etan, San Prudentzio kalean. Lasterketa amaitzeko gehieneko denbora: ordubete eta 15 minutu.

IBILBIDEA: IRTEERA – San Prudentzio kalea (Arka Plaza) , San Prudentzio kalea, Foru kalea, Florida kalea, San Antonio kalea, San Prudentzio kalea, Foru kalea, Florida kalea, Senda pasealekua, Frai Frantzisko pasealekua, Batan pasealekua, Nieves Cano kalea, Justo Vélez de Elorriaga kalea, Unibertsitatearen pasealekua, San Antonio kalea, San Prudentzio kalea, HELMUGA.

Arabako Atletismo Federazioko epaile-batzordea arduratuko da lasterketaren kontrolaz.

3. artikulua - Partaidetza

Nahi duten guztiek (federatuak zein federatu gabeak) har dezakete parte lasterketan, betiere 1999an edo lehenago jaioak baldin badira. Korrikalari bakoitzak bere ardurapean hartzen du parte lasterketan, eta ibilbide osoa amaitzeko adinako sasoi fisikoa badaukala jotzen da.

Lasterketan parte hartzeak araudi hau onartzea dakarkie korrikalari guztiei.

4. artikulua - Izen-ematea

Irailaren 25ean irekiko da izena emateko epea, eta azaroaren 10ean amaituko da. Izena emateko, bete formularioa gure webgunean: www.alboan.org/carrerasolidaria.

Izena emateko kuota: 10 €. Bestalde, "Zero dortsal" bat ere egongo da, nahi duen herritar edo erakunde orok nahi duen diru-zenbatekoa eman dezan.

Adingabekoen izen-ematea, berriz, haien gurasoek edo legezko tutoreek egin behar dute. Aipatutako webgunean ordaindu behar da izen-ematearen kuota; jasotzen den dirua, berriz, emakume behartsuen alde ALBOANek Indian, Afrikan eta Erdialdeko Amerikan kudeatzen dituen proiektuetarako izango da.

Gehienez ere 500 korrikalarik har dezakete parte lasterketan.

5. artikulua – Zirkuiturako sarbidea

Oinez egiteko lasterketa denez, ezin da egin ibilbidea patinez, patinetez edo bizikletaz, ezta inolako maskotarekin ere.

Antolatzaileek baimentzen dituzten ibilgailuak bakarrik ibil daitezke lasterketan. Ezin da bizikletaz egin ibilbidea korrikalariren baten laguntzaile gisa.

Antolatzaileek ez dute beren gain hartzen lasterketa honetan gerta litezkeen kalte, galera eta lesioen gaineko erantzukizunik, ez norberari gertatzen zaionik, ez besteren bati eragiten zaionik, ezta hirugarren batzuek korrikalariren bati eragiten diotenik ere. Lasterketako erantzukizun zibileko arriskuari dagokionez, ALBOAN Fundazioak kontratatutako aseguru-poliza batek estaliko du.

6. artikulua – Dorsalak jasotzeko

Egun hauetan banatuko dira dorsalak: azaroaren 15ean (17:00etatik 20:00etara) eta azaroaren 16an (10:00etatik 13:00etara) ALBOANen egoitzan; lasterketa-egunean, berriz, 10:00ak baino lehen, irteera-

eremuan. Izen-ematearen frogagiria eta NANA aurkeztu behar dira dortsala jasotzeko. Kamiseta bat ere banatuko da, dortsalaren batera, lasterketaren oroigarri.

Bularraldean jarri behar dira dortsalak, tolestu gabe eta ongi ikusteko moduan. Dorsalik gabe, ezin da ez lasterketan parte hartu ez helmugaratu.

7. artikulua – Sariak

Ongintzako lasterketa izaki, ez da banatuko diru-saririk; bai, ordea, opariak (sexu bakoitzeko irabazleei). Halaber, zenbait opari zozkatuko dira lasterketa amaitzen dutenen artean.

8. artikulua – Korrikalarientzako zerbitzuak

ANOA-HORNIKUNTZA.- Likidoak eta frutak emango zaizkie lasterketa amaitzen dutenei.

ARROPAZAINDEGIA.- Arropazaindegi-zerbitzu bat egongo da helmuga ondoan. Poltsa batean sartu behar da arropa, eta identifikatzeko, dortsalaren zenbaki bera jarri behar zaio, eranskailu batean idatzia.

ALDAGELAK.- Atleta guztiek erabil ditzakete Mendizorrotzako Beti Jai frontoietako aldagelak eta duxtak.

9. artikulua – Datuen babesa

Araudi hau onartuta, korrikalariak berriaz onesten dute beren datu pertsonalei buruz artikulua honek dioena. Lasterketarako izena eman eta araudi hau onartuta, eta datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/199 Lege Organikoak eta haren garapen-araudiak diotenari jarraikiz, korrikalariak espresuki baimentzen du izena emateko formularioan bere borondatez ematen dituen datu pertsonalak haien tratamenduaz arduratzeko diren fitxategietara bil daitezkeen: ALBOAN Fundazioaren fitxategietara, alegia. Honetarako erabiliko dira datu horiek: korrikalari guztiak identifikatzeko, lasterketa antolatze eta lasterketan parte hartze egin behar diren izapide administrazioak eta kudeaketa-lanak egiteko, eta ALBOAN Fundazioaren jardura, produktu eta zerbitzuen berri emateko.

Beren datu pertsonalak begiratzeko, aldatzeko, ezabatze eta haien tratamenduari uko egiteko eskubideaz noiznahi bali daitezke korrikalariak, LOPD legearen aginduei eta baldintzei jarraikiz, ALBOAN Fundazioari idazki bat bidaliz helbide elektroniko honetara: alboan@alboan.org. Idazkiarekin batera, dagokion egiaztagiria ere bidali behar da..

10. artikulua – Argazkiak

Lasterketaren antolatzaileek argazkiak egingo dituzte ibilbide osoan. Lasterketako webgunean izango dira eskuragarri argazki horiek. Lasterketan izena emate hutsagatik, korrikalariak baimendu egiten du lasterketako webgune ofizialean eta ALBOAN Fundazioarenean argitaratzea bere argazkiak, betiere lasterketaren berri emateko. Halaber, lasterketarako izena eman duen adingabea ordezkatzeko lege-ahalmena baduela onartzen eta bermatzen du, eta baimena ematen du adingabe horren argazkiak ere argitaratu daitezkeen, aipatutako webguneetan eta helburu berarekin.

11. artikulua – Informazioa

Lasterketako webgune ofizialean —www.alboan.org/carrerasolidaria— eta 944 151 135 telefono-zenbakian.. Lasterketari eta sailkapenei buruzko informazio gehiago, clublablanca.com webgunean.